



TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

TXORIERRIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

BERDINTASUN SAILA

2015ko JARDUEREN MEMORIA

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	2
2. ZERBITZUAREN EGITEKOAK	3
2.1 KOORDINAZIO-LANA	3
➤ ERAKUNDE PUBLIKOAK	
➤ MANKOMUNITATEAREN ZERBITZUAK	
➤ UDALAK	
➤ HEZKUNTZA	
➤ ENPRESAK	
➤ ELKARTEAK	
➤ KOMUNIKABIDEAK	
2.2 BESTE EGITEKO BATZUK	6
➤ HEDAPENA	
➤ HERRITARRENTZAKO ARRETA	
➤ GIZARTE ZERBITZUEN BATZORDEA	
➤ PRESTAKUNTZA	
➤ DIRU-LAGUNTZAK	
3. PROGRAMAK	8
4. DIRU-LAGUNTZAK	23
5. UDAL BAKOITZEAN EGINDAKO LANAREN LABURPENA	23

1. ZERBITZUAREN AURKEZPENA

Berdintasun Zerbitzuaren betebeharr nagusia Udalei gai honi buruzko laguntza teknikoa ematea da. Zerbitzu honen helburua emakumezko eta gizonezkoen arteko harremanak aldatzea da. Horretarako, bai emakumezko eta gizonezkoen arteko desberdintasun eta diskriminazio egoerak zuzentzeko eta konpentsatzeko, bai genero-gizarteratzearen ondorioei aurre egiteko, bai berdintasunezko gizarte-eredu bat bermatzeko balio izango duten programak, planak eta proiektuak bultzatzen ditu.

Beste sailetan ez bezala, Berdintasun Sailak bi mailatan egiten du lan Mankomunitateak: haraneko udalerri edo herritar guztientzat antolatutako **jarduketa komunaren bitartez** eta Udal bakoitzak bere herritarrentzat antolatutako **jarduketa espezifikoaren bitartez**. Bigarren kasu horretan, Mankomunitateko berdintasun-teknikariak laguntza teknikoa eskaintzen die udalerri bakoitzeko Berdintasun Unitateei.

2. BERDINTASUN-ZERBITZUAREN EGITEKOAK

Zerbitzu hau existitzearen helburua da Txorierriko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzea, generoa zeharka landuz. Kontzeptu horrek erreferentzia egiten dio politika publikoetan emakumeen eta gizonen Tratu Berdinaren eta Aukera Berdinen printzipioa aplikatzeari; horrek esan nahi du bermatu egingo dela baliabide guztiak eskuratzeko aukera-berdintasuna dagoela, politika publikoak diseinatzerakoan egun existitzen diren desberdintasunak aintzat hartzen direla eta politika horiek aurrez aipaturiko berdintasun erreal eta eraginkor hori lortzeko izan dituzten emaitzak eta eragina identifikatzen eta ebaluatzen dela.

2.1. KOORDINAZIOA

ERAKUNDE PUBLIKOAK

- Bizkaiko Foru Aldundia

Etengabe dihardugu elkarlanean Aldundiarekin; izan ere, erakunde horrek diruz laguntzen ditu berdintasunaren arloan Udalek egiten dituzten hainbat ekintza. Derio salbuespena da; izan ere, 5.000 biztanletik gora dituenek, ez du Aldundiaren diru-laguntza hori jasotzen.

Bestalde, BERDINBIDEAN BIZKAIA proiektua dugu. Proiektu horrek berdintasunaren alde lan egiten du Lezaman eta Zamudion; hori dela eta, beharrezkoa da erakunde horrekin harreman estuagoa izatea.

- EMAKUNDE

Emakumearen Erakundea oinarrizkoa da EAEn berdintasuna lortu ahal izateko, eta lankidetzat funtsezkoa da sailak behar bezala funtziona dezan.

- EUDEL

Larrabetzu izan ezik, gainerako udalerririk guztiak BERDINSAREA izenekoaren kide dira. BERDINSAREA euskal udalerrien sare bat da eta berdintasunaren alde lan egiten du.

Hori dela eta, ezinbestekoa da EUDELekin eta sareko kide diren gainerako udalerriekin lankidetzan aritzea.

MANKOMUNITATEAREN BESTE ZERBITZU BATZUK

Berdintasuna Mankomunitateko sail guztietan zeharka landu ahal izateko, egunez egun elkarlanean aritzen gara Gazteria, Esku-hartze Komunitario eta Euskara sailtako teknikariek.

UDALAK

Zerbitzu honek behar bezala funtziona dezan, ezinbestekoa da lankidetzan aritzea udal guztietako Kultura Sailekin; hori dela eta, hilean behin sail horretako ordezkari guztiok bildu egiten gara Gazteria, Euskara, Esku-hartze Komunitario eta Berdintasun sailtako ordezkariekin.

Ekintzak abiatzeko, ezinbestekoa da, halaber gazteguneetako, gaztelekuetako eta ludoteketako begiraleekin harremanetan egotea.

HEZKUNTZA

Martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainetan, ohikoa da eskola publikoetara ekintzak eramatea; horretarako, ezinbestekoa da ikastetxe horietako zuzendaritzekin elkarlanean jardutea.

Kanpaina horietan, HHLan ere abiatzen dira ekimenak; horretarako, funtsezkoa da ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin batera lan egitea.

Politeknika Ikastegia Txorierrirekin ere harreman estua dugu; izan ere, urtero antolatzen da bizikidetzarekin eta berdintasunarekin erlazionaturiko jarduera bat.

ENPRESAK

Enpresa hauekin egiten dugu lan batez ere: WOM COMUNICACIÓN, ORTZADAR, ESHE, MURGIBE, SORTZEN, LANTEGI BATUAK.

ELKARTEAK

Mankomunitatea osatzen duten hainbat udalerrik emakume-elkarteak dituzte; Berdintasun Saila haiekin harreman etengabea eta lankidetzaz jarraitua izaten saiatzen da.

KOMUNIKABIDEAK

Funtsean, Berdintasun Saila bi komunikabiderekin aritzen da elkarlanean: AIKOR eta DEIA.

2.2. BESTE FUNTZIO BATZUK

HEDAPENA

Udalerrietako kultur agendak eta webguneak erabiltzen dira batez ere Berdintasun Sailak antolatzen dituen jarduerak ezagutzera emateko.

Horrez gain, kartelak jarri, diptikoak postontzietan sartu eta sare sozialak ere erabiltzen dira.

HERRITARRENTZAKO ARRETA

Ohikoa izaten da emakumeak Berdintasun Sailera etortzea genero-indarkeriari buruzko aholkularitza bila. Orain arte, eskura dituzten baliabideen berri eman diegu eta kasu zehatzagoetan, esaterako, indarkeria jasaten ari den alaba adingabe bat dutenen kasuan, zer egin azaldu diegu.

GIZARTE ZERBITZUEN BATZORDEA

Hilean behin, Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen Batzordean aurkezten dira Berdintasun Sailean antolatzen diren programak eta ekintzak.

PRESTAKUNTZA

Azaroaren 12an, 19an eta 26an, Berdintasun teknikariak bikote nerabeen indarkeria-prebentzioari buruzko ikastaro batean parte hartu zuten. Gazteen Euskal Behatokiak antolatutakoa zen ikastaroa eta 25 orduko iraupena zuen.

3. PROGRAMAK

JARDUERAREN IZENA

1.-BERDINTASUNEZKO ELKARBIZITZA LORTZEKO TAILERRA POLITEKNIKAN

1.- Jardueraren esparrua

Jarduera hau Politeknika Txorierriko ikasleentzat da.

2.- Jardueraren helburuak

Honako hauek dira helburu nagusiak:

- Politeknika Txorierriko nerabeen artean berdinen arteko indarkerian eta genero-indarkerian esku hartzen duten mekanismoei buruzko eztabaida sustatzea.
- Pertsonen arteko harremanak finkatzeko behar diren funtsezko balioak sendotzen laguntzea: berdintasuna, autonomia, aukeratzeko askatasuna, gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea...
- Berdintasunean, indarkeriaren prebentzioan, kulturarteko hezkuntzan eta halako balioetan oinarritutako hezkuntzarako jarduera onak sustatzea.

3.- Jardueraren deskripzioa

Hiru orduko saio bat egin da mekanizazioko 1. mailako taldearekin, eta, bertan, honako hau egin da modu dinamiko eta parte-hartzailean:

1. Neska eta mutil gazteen arteko elkarbizitzarako alderdi gako gisa sustatzea ikasleen arteko indarkeria-harremanak elkarrizketa eta desberdintasunaren onarpena erabiliz eraldatzea, hainbat sentsibilizazio- eta prestakuntza-jardueraren bitartez.

2. Tratu txarretan eta errespeturik ezean esku hartzen duten mekanismoei buruzko eztabaida sustatzea Politeknika Txorierriko ikasleen artean.

3. Gizonen kontzientziazio, parte-hartze eta inplikazio handiagoa sustatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.

4.- Ebaluazioa

Eztabaida oso interesgarriak eta aberasgarriak sortu dira, eta hainbat proposamen bildu dira elkarbizitza hobetzeko. Horrez gain, ikasleak indarkeria matxistaren kausen eta ondorioen inguruan sensibilizatzea lortu da, eta jarduera onak sustatu dira. Hortaz, bete egin dira programaren helburuak.

5.- Aurrekontua

Jardueraren kostua 240 €-koa izan da.

6.- Hartzaileak

Mekanizazioko 1. mailako 12 ikaslez osatutako talde bat. 16-18 urteko mutilak.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Programa hau ontzat jo dute bertan esku hartzen duten eragile guztiek. Hala ere, agian interesgarria izango litzateke ikastetxeko ikasleekin sakonago lan egitea.

JARDUERAREN IZENA

2.- BERDINTASUNARI BURUZKO TAILERA HHEn (MARTXOAREN 8KO KANPAINA)

1.- Jardueraren esparrua

HHEko ikasleentzako jarduera da. Borondatezkoa da, ez da eskola-ordutegian egin beharreko ekintza bat.

2.- Jardueraren helburuak

Ikastaro honek bi ordu irauten du, eta asmoa da bertaratzen direnak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren oinarrietara gerturatzea. Helburua da ikasleak sensibilizatzea eta haiei prestakuntza teoriko eta praktikoa ematea, euren garapen pertsonalean laguntzeko eta benetako berdintasuna lortzeko bidean gizarteak egin behar dituen aldaketetan ekarpenak egitera animatzeko.

Halaber, asmoa da parte-hartzaileek desberdintasunak eta diskriminazioak gainditzeko beharraren inguruko kontzientzia hartzea, gizarte hobea bat eraiki dezagun, ez soilik emakumeentzat, baita pertsona guztientzat ere.

3.- Jardueraren deskripzioa

Honako eduki hauek landu ziren: alde batetik, sexua, sexualitatea, sexu-identitatea, sexuartekotasuna, sexu-desberdintasuna, matxismo-henbrismo-feminismo-maskulinismoa eta halako oinarritzko kontzeptuak.

Kontzeptu horiek lantzearen helburua da identifikatzea eta barneratzea pertsona guztiok desberdinak garela pertsona sexudunak garelako. Balio hori landu egin behar da, betiere desberdintasunak zuzen balioztatzen ditugunean, elkar hobeto ulertzeko, desadostasunak kudeatzeko eta generoaren araberako sozializazio bereizgarria deseraikitze. Bestalde, sistemen teoriari eta bikote-teoriari lotutako edukiak landu ziren, sistemen berezko ezaugarriak zein bikote-harremanenak, eta

bereziki azpimarratu zen jeloskortasunaren gaia eta zelotipia-jokoa, berdintasunean, askatasunean eta erantzunkidetasunean oinarritutako bikote-harremanak sustatze aldera.

4.- Ebaluazioa

Ikasleek esker ona adierazi diote Derioko HHEko koordinazio-arduradunari eta hizlariari, eta oso pozik gelditu direla adierazi dute. Hitzaldiaren helburuei dagokienez, lortu da sexu-desberdintasunak identifikatzeko eta baloratzeko ideietan eragitea, sexuen arteko sinergia-aliantzak sustatu dira bikote-harreman bidezkoagoak ezartzeko, eta baliabideak eman dira zelotipia-jokoa detektatzeko eta horri aurre egiteko.

Gainera, ontzat jo behar da bertaratzea borondatezkoa zela eta pertsona ugari bertaratu zirela.

5.- Aurrekontua

Jardueraren kostua 250 eurokoa izan da guztira.

6.- Hartzaileak

17 pertsonak parte hartu zuten: 8 emakumek eta 9 gizonek.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Interesgarria izango litzateke berdintasunaren aldeko lanean denbora gehiago ematea, baina egutegia nahiko beteta dago eta zentroko zuzendaritzak ez du posible ikusten hori.

JARDUERAREN IZENA

3.- BATERAKO HEZKUNTZARI BURUZKO GIDA INPRIMATZEA ETA BANATZEA

1.- Jardueraren eremua

Baterako hezkuntzari buruzko gida da jarduera honen oinarria.

3.- Jardueraren helburuak

Helburua da gida 13 urtetik beherakoak bizi diren Txorierriko etxe guztietara helaraztea.

3.- Jardueraren deskripzioa

5.000 gida inprimatu dira, eta 14 urtetik beherako pertsonak erroldatuta dauden Txorierriko etxe guztietan banatu dira.

Anbulatorioetan, ludoteketan, liburutegietan eta udaletxeetan ere utzi dira aleak.

4.- Ebaluazioa

Berdintasun-arloak zein Txorierriko ikastetxe publikoek oso positibotzat jo dute jarduera.

Gertuko beste ikastetxe batzuek ere deitu digute, gida formatu digitalean eskatzeko.

5.- Aurrekontua

Kostua 7.601,06 eurokoa izan da.

6.- Hartzaileak

Txorierriko udalerritako familia eta pertsona interesdun guztiak.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Gidaren diseinua oso egokia dela adierazi da, eta ez dago horren inguruko proposamenik.

JARDUERAREN IZENA

4.- PUNTU LILA DUTEN AHOZAPIAK INPRIMATZEA ETA BANATZEA

1.- Jardueraren esparrua

Sentsibilizazio-jarduera da

2.- Jardueraren helburuak

Herritar guztiak emakumeenganako indarkeriaren aurka sentsibilizatzea eta saltegi, taberna eta jatetxeak indarkeria horren aurkako borrokan inplikatzea.

3.- Jardueraren deskripzioa

Guztira 154.000 ahozapi inprimatzeko agindu da. Udalerri bakoitzeko taberna eta jatetxe bakoitzean 1.000 ahozapi utzi dira.

4.- Ebaluazioa

Jarduera positibotzat jo da, eta herritarren harrera oso ona izan da.

5.- Aurrekontua

Ahozapiak inprimatzea: 657,03 €

Banatzea: 242 €

6.- Hartzailea

Txorierriko udalerrri guztietako taberna, jatetxe eta saltegiak.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Unean uneko jarduera izan da, eta oso harrera ona izan du; hortaz, etorkizunera begira, ez da hobekuntzarik proposatzen.

JARDUERAREN IZENA

5.- INSTITUTUAN INDARKERIA SEXISTA PREBENITZEKO TAILERRA

1.- Jardueraren eremua

Institutuko 3. DBHko ikasleak eta irakasleak sentsibilizatzeko jarduera bat da.

2.- Jardueraren helburuak

Hona hemen jardueraren helburuak:

- Sozializatzeko prozesuak eta horiek nortasuna eraikitzeke orduan duten eragina identifikatzea.
- Identitatea eraikitzeke orduan eta harreman afektiboetan dauden mito, estereotipo eta uste faltsuen inguruan kontzientzia hartzea.
- Errespetuzko eta berdintasunean oinarritutako harremanak identifikatzea eta sustatzea.
- Indarkeria sexista zer den, zergatik gertatzen den, zer egin behar den eta laguntza non lor daitekeen sakonago aztertzea.

3.- Jardueraren deskripzioa

3. DBHko talde bakoitzarekin 2 orduko 3 saio egingo dira; hau da, tailerrak 6 ordu iraungo du talde bakoitzarekin, eta irakasleekin bi orduko saio bat egingo da.

4.- Ebaluazioa

Jardueran parte hartu duten guztiek oso positibotzat jo dute.

5.- Aurrekontua

Jardueraren kostua 2.269 eurokoa izan da, eta Aldundiak 1.607,20 euroko dirulaguntza eman du.

6.- Hartzaileak

Jarduera hau institutuko 3. DBHko ikasleentzat eta irakasleentzat da.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Etorkizunera begira, tailer hau 1. eta 2. DBHko ikasleekin egitea pentsatu beharko litzateke.

JARDUERAREN IZENA

6.- MARTXOAREN 8KO KANPAINA:



1.- Jardueraren eremua

Martxoaren 8ko kartelak Txorierriko udalerrri guztietarako dira, eta udalerrri bakoitzeko biztanle-kopuruaren arabera banatzen dira.

2.- Jardueraren helburuak

Jardueraren helburua da herritarrei martxoaren 8ko kanpainaren berri ematea.

3.- Jardueraren deskripzioa

Kartel bat diseinatu da, eta horren 250 kopia egin dira. Kopia horiek Mankomunitatea osatzen duten 6 udalerrietan jarri dira.

4.- Ebaluazioa

Zaila da horrelako jarduera bat ebaluatzea; izan ere, martxoaren 8ko kanpainarako kartel bat diseinatzean eta kartela eta egitaraua 6 udalerrietan jartzean datza.

5.- Aurrekontua

Kartela diseinatzearen eta 250 kartel inprimatzearen eta jartzearen kostua 1.282,6 eurokoa izan da.

6.- Hartzaileak

Txorierriko herritarrak.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Azaroaren 25eko kanpainarako, informazio-diptikoak ere inprimatuko dira, leku estrategikoetan uzteko eta, hala, herritar gehiagorengana iristeko.

JARDUERAREN IZENA

7.- AZAROAREN 25EKO KANPAINA



1.- Jardueraren eremua

Azaroaren 25eko kartelak Txorierriko udalerrri guztietarako dira, eta udalerrri bakoitzeko biztanle-kopuruaren arabera banatzen dira.

2.- Jardueraren helburuak

Jardueraren helburua da herritarrei azaroaren 25eko kanpainako jardueren berri ematea.

3.- Jardueraren deskripzioa

Kartel bat diseinatu da, eta horren 250 kopia egin dira. Kopia horiek Mankomunitatea osatzen duten 6 udalerrietan jarri dira. Lehen aldiz, kartelez gain, 2.000 diptiko argitaratu dira, eta udalerrri bakoitzeko leku estrategikoetan utzi dira.

4.- Ebaluazioa

Zaila da horrelako jarduera bat ebaluatzea; izan ere, azaroaren 25eko kanpainarako kartel bat diseinatzean eta kartela eta egitaraua 6 udalerrietan jartzean datza.

5.- Aurrekontua

250 kartel eta 2.000 diptiko diseinatzearen, inprimatzearen eta jartzearen kostua 1.775,07 eurokoa izan da.

6.- Hartzaileak

Txorierriko herritarrak.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainari begira, igo egingo da diptikoen kopurua; izan ere, ikusi da 2.000 diptiko ez direla nahikoa.

JARDUERAREN IZENA

8.- ESKOLETAN PUNTU LILAK JARTZEKO KARTOI MEHEAK

1.- Jardueraren eremua

Txorierriko ikastetxe publikoekin bilera bat egin ondoren, erabaki zen elkarrekin jarduera bat egitea azaroaren 25ean.

2.- Jardueraren helburuak

Hona hemen jardueraren helburuak:

- Eskualdeko eskolekin batera lan egitea berdintasunaren alde.
- Haurrak azaroaren 25eko kanpainan parte har dezaten lortzea.

3.- Jardueraren deskripzioa

500 kartoi mehe more banatu dira eskola bakoitzean (denera, 2.500), haur guztiek puntu lila bat egin dezaten euren izenarekin eta euren etxera eraman ditzaten, leihoetan jartzeko.

4.- Ebaluazioa

Irakasleek, ikasleek zein gurasoek oso positibotzat jo dute jarduera.

5.- Aurrekontua

Jardueraren kostu osoa, hau da, kartoi meheak erostearen kostua 66,55 eurokoa izan da.

6.- Hartzaileak

Txorierriko eskoletako ikasleak.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Unean uneko jarduera bat da, eta ez da hobetzeko alderdirik identifikatu, baina ikusi da eskola publiko guztiekin modu koordinatuan eta batera lan egiteko beharra dagoela eta hainbat abantaila dituela.

4. DIRU-LAGUNTZAK

2015ean, 1.607,20 euro jarri ditu Aldundiak, institutuak urtero antolatzen dituen indarkeria prebenitzeko tailerretarako.

5. UDAL BAKOITZEAN EGINIKO JARDUEREN LABURPENA

Mankomunitateak herritar guztientzako jarduerak antolatzen ditu, eta udalek dagokiena egiten dute udalerrri bakoitzean. Hona hemen udalerriek eginiko ekintzak.

LOIU

2014. urtean, jarduera hauek egin ziren Loiun:

Martxoaren 8ko kanpainako haurrentzako jarduerak

Haurrentzako bi jarduera egin dira Emakumeen Nazioarteko Egunaren kanpainaren harira. 13 haur bertaratu dira batez beste, eta pixkanaka ikusten da horrelako jarduerak duten emaitza. Hala ere, egia da gehiago lan egin behar dela adingabeekin, eta denbora luzeagoan.

Komunikazio enpatikoari, seguruari eta positiboari buruzko tailerra

Udalerriko emakumeentzako tailer honek 7 ordu iraun du, eta 4 saio izan dira denera.

Sei emakumek parte hartu dute, eta parte-hartzea txikia izan bada ere, oso pozik gelditu dira hala parte hartu duten emakumeak nola Udaleko Berdintasun Arloa.

Nork bere gorputza ezagutzeari eta emakumeen minbiziaren prebentzioari buruzko hitzaldia

15 emakumek parte hartu zuten, eta bertan, esperientziak partekatu, informazioa jaso eta zalantzak argitu zituzten jarduera dinamizatu zuen emaginarekin. Emakume batzuek etorkizunean horrelako ekintza gehiago egiteko beharra zegoela adierazi zuten.

Ligatzeko tailerra Gaztegunean

Loiuko azaroaren 25eko kanpainaren jarduera nagusi gisa, ligatzeko tailer bat antolatu zen udalerriko gazteentzat. 13 neska-mutilek parte hartu zuten, eta helburua zen maitasun erromantikoari eta bikote-harremanetako errespetuari buruzko mitoak deseraikitzea.

Azaroaren 25aren harira eginiko haurrentzako jarduerak

Haurrentzako bi jarduera egin dira Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunaren kanpainaren harira: bat Elotxelerrin eta bestea Larrondon. 15 haurrek parte hartu zuten, eta parte hartu zuten eragileek oso positibotzat jo zuten jarduera.

Politikarientzako prestakuntza

Prestakuntza eta sentsibilizazioa oinarrizkoak dira genero-ikuspegia lan-arlo guztietan txertatzeko, eta zinegotziek, jarduera edo ekintza bakoitzaren azken arduradunak diren heinean, behar diren tresnak izan behar dituzte lan hori egiteko. Zinegotzi guztiek hartu dute parte, eta ebaluazio orokorra ona izan da.

SONDIKA

2015. urtean, jarduera hauek egin dira Sondikan:

Martxoaren 8ko kanpaina ludotekan

Emakumeen nazioarteko eguna dela eta, "Desioen Lorategia" izeneko jarduera antolatu da. Jarduera horretan, 21 neska-mutilek berdintasunarekin lotutako esaldiak jarri dituzte, aurretik dinamizatzaile batekin gaiarekin lotutako oinarrizko kontzeptuak landu ondoren.

Santa Kruzeko jaietarako pegatinak

Santa Kruzeko jaietara begira, irailaren erdialdera hainbat pegatina banatu ziren txosnetan eta tabernetan uzteko. Honako hau jartzen zuen pegatinetan: "Sondikako jaietan ondo pasa eta ez zaitez pasa". Ekintzak oso harrera ona izan du.

Komunikazio seguruari, positiboari eta enpatikoari buruzko tailerra

Emakumeen ahalduntzea sustatzeko eta komunikatzeko orduan ziurtasuna izateko antolatu da ekintza hau. 11 emakumek hartu zuten parte. Horietako asko oso helduak ziren, eta 2016an haienzako tailer berezi bat egingo da.

Politikarientzako prestakuntza

Genero-ikuspegia udal-arlo guztien eguneroko lanean txertatzeko, prestakuntza-jardunaldi bat antolatu da udaleko politikarientzat. Alkateak eta arlo guztietako 11 zinegotziek parte hartu dute.

Azaroaren 25eko kanpaina ludotekan

Bi jarduera espezifiko egin ziren emakumeen kontrako indarkeriarekin lotuta: bat I. ludotekan eta bestea II. ludotekan. Izan ere, kontuan hartu behar ziren espazio bakoitzeko haurren arteko desberdintasunak ekintza bat edo bestea egiteko.

Azaroaren 25eko kanpaina Gaztetxean

Ez da erraza berdintasuna gazteekin lantzea, eta, balio horiek haiengana gerturatzeko asmoz, "Mujeres, hombres y viceversa" izeneko tailer bat egin da. Tailer horretan, kontzeptu horiek landu dira programa horretako atalak eta pertsonaiak oinarri hartuta, eta 13 gaztek hartu dute parte. Oso positibotzat jo dute jarduera parte hartu duten neskek zein mutilek, monitoreak eta dinamizatzaileak.

Nork bere gorputza ezagutzeari eta bularreko minbiziaren prebentzioari buruzko tailerra

Bi orduko tailerra izan da, eta 14 emakumek parte hartu dute. Emakume horiek zenbait gaixotasun saihesteko euren gorputza nola zaindu ikasi dute, eta gaixotasun horiei buruzko zenbait zalantza ere argitu dituzte.

DERIO

2015. urtean, jarduera hauek egin dira Derion:

Martxoaren 8ko kanpaina

Berdintasunaren aldeko martxa bat antolatu da lehen aldiz, eta oso jendetsua izan da: 300 pertsona inguruk parte hartu dute.

Kanpainaren barruan, erakusketa bat eta maskulinitate berriei buruzko hitzaldi bat ere antolatu ziren. 16 pertsona joan ziren hitzaldira. Nabarmentzekoa da gizonak ere bazeudela.

BEITUko plantillarentzako prestakuntza.

BEITU Derioko udal-aldizkaria da, eta udalerriko etxe guztietara iristen da. Hori dela eta, oso garrantzitsua da idazteko orduan irudi eta hizkera inklusibo bat erabiltzea. Horretarako, hiru orduko prestakuntza-tailer bat egin zen aldizkariko lantaldearentzat gai horri buruz. Mankomunitateko berdintasun-teknikariak eman zuen tailerra. Kontziente dira hizkera behar bezala erabili behar dela, eta, horregatik, pixkanaka erabilera hori txertatzen ari dira aldizkarietako artikuluetan.

Politikarientzako prestakuntza.

Udaleko politikariei 4 ordu eta 30 minutuko prestakuntza ematea pentsatu da, genero-ikuspegia udal-arlo guztietako egunerokoan txertatu ahal izateko. Parte-hartzea ez zen esperotakoa izan, baina bertaratu zirenek oso balorazio ona egin zuten.

Azaroaren 25eko kanpaina

Ohi bezala, manifestazioa egin zen, eta oso jendetsua izan zen. Indarkeria identifikatzeari buruzko hitzaldi bat ere egin zen; 21 pertsona bertaratu ziren eta oso ontzat jo zuten jarduera.

Hiri-diagnostikoa genero-ikuspegitik

Profil desberdinak ordezkatzeko dituzten kolektiboetako Derioko emakumeen talde bat sortu zen, eta, udalerrian hainbat ibilbide egin ondoren, genero-ikuspegian

oinarritutako hiri-diagnostiko bat egin zen. Lan honetan, emakumeek herrian seguru egoteko eta arazorik gabe mugitzeko dituzten oztopoak aztertu ziren.

ZAMUDIO

2015. urtean, jarduera hauek egin dira Zamudion:

Martxoaren 8ko kanpaina

Hainbat ekintza egin dira liburutegian, ludotekan eta Gaztestazioan. Haur eta gazte ugari parte hartu dute, eta oso balorazio positiboa egin dute ekintzetan parte hartu duten pertsona guztiek.

“Harta de Cuentos” antzezlanaren ere antolatu zen. Obra horretan, ipuin tradizionalak oinarri hartu eta maitasunari eta berdintasunari buruzko mitoak deseraiki zituzten.

Berritasun gisa, 12:00etan egin ohi den elkarretaratzea 19:00etan ere egin zen, goizez lan egiten zutenek bertaratzeko aukera izan zezaten.

Aurten, gainera, emakumeen pilota-finala Zamudion egin zen, eta arrakasta handia izan zuen berria eta desberdina zelako.

Nork bere gorputza ezagutzeari eta bularreko minbiziari buruzko tailerra

Nork bere gorputza ezagutzeko eta emakumeen minbizia prebenitzeko tailer bat izan da. Hainbat adinetako 31 emakume bertaratu ziren, eta azkenaldian antolatutako jarduerarik jendetsuenetako bat izan zen, arloak antolatutako antzerkiak eta haurrentzako jarduerak kontuan hartu gabe.

LAGUNANDRE

Ezinbestekoa da LAGUNANDRE emakumeen elkartearekin koordinazioan aritzea, eta horregatik egin ohi ditu bilerak Berdintasun Arloarekin.

Azaroaren 25eko kanpaina

Jarduera ugari egin dira kanpaina honetan; alde horretatik, azaroaren 25ekoa indartsuena izan da.

Boxeo-taldearekin batera, emakumeen boxeo-gaua egin zen, kirol honetan emakumeek duten presentzia ikusarazteko asmoz. Jende ugari bertaratu zen ekitaldi hau ikustera.

Hitzaldi bat ere egin zen, honako honi buruz: maitasun erromantikoa, genero-indarkeriaren oinarria. Bi ordukoa izan zen jarduera, eta 17 pertsonak parte hartu zuten, oso aktiboki.

“El camino de Belinda” antzezlanak aukeratu zuten aurtengo kanpainan antzezteko, baina, ordutegi-aldaketak izan zirela eta, 11 pertsona baino ez ziren azaldu.

Ohi bezala, liburutegian, ludotekan eta Gaztestazioan antolatutako jarduerak arrakasta handia izan zuten haurren eta gazteen artean.

BERDINBIDEAN

Zamudioko Udalak erabaki du bere egitea BERDINBIDEAN Bizkaia Aldundiaren proiektua, eta “Kontratazio publikoa” lan-ildoaren aldeko apustua egin du. Udalak sinatutako hitzarmen eta kontratu guztietan berdintasun-klausulak txertatzean datza.

LEZAMA

2015. urtean, jarduera hauek egin dira Lezaman:

Ludotekako urteko programa

Hirugarren urtez jarraian, berdintasuna sustatzeko haurrentzako 4 jarduera egin dira ludotekan. Batez beste, 30 haurrek parte hartu dute, eta, hori dela eta, programarekin jarraitzea erabaki da.

Gazteguneko urteko programa

Gazteguneren kasuan ere berdintasunarekin eta tratu onekin lotutako 4 jarduera egin dira. 19 pertsonak parte hartu dute batez beste, eta orain arteko emaitzak oso positiboak izan dira; hortaz, egitarau horrekin jarraituko da.

Martxoaren 8ko kanpaina

Martxoaren 8ko kanpaina ohikoa den bezala, Lezamako AUSARTAK antzerki-taldeak antzezlan bat eman du Kultura gelan. Jarduera honen helburua da emakume talde honek eginiko lana ikusaraztea eta, era berean, haien ahalduntzea sustatzea. Hainbat adinetako 50 pertsona inguru bertaratu dira, gehienak emakumeak.

Azaroaren 25eko kanpaina

2015ean, AUSARTAK antzerki-taldeak, lehen aldiz, emakumeen aurkako indarkeriari lotutako antzezlan dramatikoago bat antzeztu du. Antzezlana martxoaren 8an izan ohi dena baino laburragoa izan da, eta pertsona gutxiago bertaratu dira.

Komunikazio seguruari, positiboari eta enpatikoari buruzko emakumeentzako tailerra

Tailerra 2014an hasi zen, eta, udalerriko emakumeek hala eskatuta, bigarren aldiz egin zen martxoaren 3, 10, 17, 24 eta 31n eta apirilaren 7an, 18:00etatik 20:00etara, Kultura Gelan. Denera, 11 emakumek hartu dute parte, eta, haien balorazio dela eta, ikusi da horrelako tailer-motak oso egokiak direla.

Nork bere bularrak aztertzeke tailerra

Maiatzaren 29an, bi orduko tailer bat egin zen, udalerriko emakumeei euren bularrak aztertzeke zenbait jarraibide emateko. Hainbat adinetako 9 emakumek hartu zuten parte.

BERDINBIDEAN

Lezamako Udalak 2013tik egiten du lan BERDINBIDEAN Bizkaia-rekin, langileek euren eguneroko lanean genero-ikuspegia txerta dezaten.

Prestakuntza

Lezamako zinegotziek eta alkateek 4 ordu eta erdiko prestakuntza jaso dute genero-ikuspegia euren lanean txertatzeari buruz. Sentsibilizazio hori oinarritzkoa da udalerrian benetako berdintasuna lortze aldera.

LARRABETZU

2015. urtean, jarduera hauek egin dira Larrabetzun:

Baterako hezkuntza-programa eskolan eta Baterako Hezkuntzaren Batzordea

Duela hiru urtetik, udalerriko eskolarekin batera lan egiten da baterako hezkuntza ikastetxeko eguneroko jardunean txertatzeko.

Era berean, Baterako Hezkuntzaren Batzordea osatu zen, eta bertan eskolako, Udaleko eta gurasoen ordezkariak biltzen dira.

Alde horretatik egiten den lana ezinbestekoa da; izan ere, hezkuntzan eragin behar da gaur egun dagoen berdintasunik ezaren sistema aldatzeko.

Martxoaren 8ko kanpaina

Larrabetzuko martxoaren 8ko kanpaina erabatekoa izan da. Askotariko jarduerak egin dira, eta jende guztiarentzat. Azpimarratzekoa da hainbat elkartek eta taldek parte hartu dutela egun berezi honetako ekintzak antolatzen.

Azaroaren 25eko kanpaina

Azaroaren 25eko kanpainan ere Larrabetzuko adin guztietako emakumeek parte hartu eta lagundu dute. Horri esker, antolatutako ekintzek oso harrera ona izan dute, eta jende askok hartu du parte.

Larrabetzuko emakumeen historia berreskuratzea

Proiektu hau buruan zuen Udaleko aurreko berdintasun-unitateak ere, baina aurten, 2015ean, abiarazi da prozesuaren lehen zatia. Adineko hainbat emakumerekin jarri gara harremanetan, Larrabetzuko emakume diren heinean euren esperientziak eta bizipenak konta ditzaten. Egitasmo honen helburua da pertsona horiek herriari egin dioten ekarpena eta euren bizi-ibilbideak euren inguruan izan duen eragina ikusaraztea eta horri balioa ematea.

Nork bere bularrak aztertzeari buruzko tailerra (ez zuen inork izena eman)

Gainerako udalerrietan, ekintza honek arrakasta handia izan zuen, baina Larrabetzun ez zuen inork izena eman izena emateko epearen barruan; hori dela eta, bertan behera utzi zen.